



BELARRIKO KIRURGIA (Ebakuntza egin ondorenerako zainketak eta gomendioak)

Ebakuntza egin dizute belarrian. Ezin hobeto bizkortzeko, egin kasu aholku hauei:

1. Ez du operatutako belarrian lo egin behar lehen sendatu arte; une horretan, medikuak jakinaraziko dio nola jokatu. Drainatze transtinpanikoetan edo miringotomietan ez da beharrezkoa operatutako aldearen gainean lo egitea.
2. Min handia edo iraunkorra baldin baduzu eta agindu dizkizuten lasaigarriekin pasatzen ez bazaizu, galdetu familia-medikuari edo joan larrialdietara.
3. Ez busti zauri kirurgikoaren eremua.
4. Idorreria saihestu behar duzu. Horretarako, produktu laxanteren baten koilaratxokada bat har dezakezu egunean, ebakuntza ondoko aldiak iraun bitartean.
5. Ez egin inolako esfortzu fisikorik, ez eta mugimendu bortizik ere buruarekin eta lepoarekin ebakuntzaren ondorengo lehen egunetan.
6. Ez duzu inolaz ere belarriaren barneko gaza-tapoa zuk kentzen saiatu behar.
7. Doministiku egin behar baduzu, egin ezazu ahoa irekia duzula, presioa belarrira irits ez dadin.
8. Halaber, ez duzu zintz indarrez egin behar.
9. Ez gidatu autoa, lehenbiziko egunetan zorabiatu egin baitzaitezke.
10. Saihets itzazu altuera-aldaketak, hegazkin-bidaiak barne, hilabetez.
11. Ebakuntza egin zaion belarritik odola botatzen badu, atsedean hartu beharko du eta hala erabakiz gero, kanpoko apositua aldatu.
12. Ebakuntza egin eta 24 ordura odola botatzeari utzi ez badio, larrialdi zerbitzuetara jo beharko duzu.